



## AP-1 autobidea gauz itxiko da Eskoriatza eta Luko artean, Isuskitzako tunelean simulazioa egiteko

*Ostegunean azaroak 14, 22:30etik 03:00etara.*



Ostegun gauean, azaroak 14, Bidegik eta Arabatek partekatutako simulazio bat egingo dute Gipuzkoa eta Araba arteko Isuskitzako tunelean. Hori dela eta, autobidea itxita egongo da bi noranzkoetan 22:30etik 03:00etara, Eskoriatzako lotunearen (Gipuzkoa) (123,500 kp) eta Lukuko lotunearen (Araba) artean (107,000 kp). Mozketa 22:30ean hasiko da Gasteiz noranzkoan eta 23:00etan Eibar norabidean.

Alternatiba gisa, Eibartik Gasteizera noranzkoan doazen trafikoek Eskoriatzako 123. irteeratik atera beharko dute eta GI-627 eta A-627 errepideetatik jarraitu. Kontrako noranzkoan, ibilgailuek N-240 eta A-627 errepideak erabili beharko dituzte Eskoriatzarantz.

Erabiltzaileei ahalik eta gutxien eragiteko, simulazioa gauz egingo da. Gainera, osteguneko 18:00etatik aurrera, AP-1, AP-8, AP-636, A-15, A-1 eta N-240 errepideetan dauden mezularitza aldakorreko panelek autobidea itxita egongo dela ohartaraziko dute.

Simulakroaren helburua da simulazioan parte hartzen dutenen gaikuntza neurtzea, larrialdi-protokoloak ezagutu eta aplikatzeari, erantzuteko azkartasunari eta inplikaturako langileen eta kanpoko zerbitzuen (Arabako eta Gipuzkoako suhiltzaile-parkeak, Ertzaintza, SOS Deiak eta osasun-zerbitzuak) arteko koordinazioari dagokienez. Era berean, Bidegiren gain dauden tunelaren ustiapeneko arduradunen eta Arabat emakidadunaren koordinazioa aztertzekeo balioko du, baita lurralde bakoitzeko eginkizunen banaketa aztertzekeo ere.

Hori gauzatzeak aukera emango du azpiegitura ustiatzeaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza-premia berriak identifikatzeko, erabilitako protokolo eta prozedurak hobetzeko edo tuneleko segurtasun-sistemetan egon daitezkeen gabeziak antzemateko.



Jarduketa hau 2004/54/CE Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua betetzeko egiten da non agintzen duen errepide sare transeuropeotan, 500 metro luzera baino gehiago duten tuneletan, segurtasun-ariketak egitea eta AP-1/AP-8 autobidea sare horretan dago.

Isuskitzako tunela 2009an jarri zen martxan. 3.415 metroko luzera du eta Euskadiko luzeena da. Bi hodi paralelo ditu, noranzko bakoitzean bi errei dituztenak, eta eguneko batez besteko intentsitatea 17.712 ibilgailukoa da, hauetatik % 22 astunak (2023ko trafikoaren datuak). Tunelak bi hodiak komunikatzen dituzten larrialdiko 11 galeria ditu, horietatik 3 larrialdietako ibilgailuak igarotzeko gaituta daude, eta hiru bazterbide ere baditu noranzko bakoitzean. Instalazioei dagokienez, argiztapen normala, segurtasunekoa eta ebakuaziokoa, CO/NO/NO<sub>2</sub> detektagailudun aireztapena (karbono monoxidoa, nitrogenoarena eta nitrogeno dioxidoarena), opakimetroak eta anemometroak ditu. Era berean, sute-ahoen eta su-itzialgailuen bidezko suteak itzaltzeko sistemak ditu, zutabe lehorrak galerietan eta suteak detektatzeko kable jarraitua. Baita sarbideen kanpo-seinaleak, barne-seinaleak, SOS zutoinak, kamerak, megafonia eta irrati-komunikazioen sistema ere. Tunela Bergarako Ondartza zentrotik kudeatzen da. Bertatik AP-1 eta AP-636 errepideen kontrola eramaten da.

2024/11/12



## Cierre nocturno de la AP-1 entre Eskoriatza y Luko para efectuar un simulacro en el túnel de Isuskitza

*El jueves 14 de noviembre desde las 22:30h hasta las 03:00h*



En la noche del jueves 14 de noviembre, Bidegi y Arabat van a efectuar un simulacro compartido en el túnel de Isuskitza que discurre entre Gipuzkoa y Araba. Por tal motivo la autopista estará cerrada en ambos sentidos desde las 22:30h hasta las 03:00h entre el enlace de Eskoriatza en Gipuzkoa, pk 123,500 y el enlace de Luko en Araba, pk 107,000. El corte comenzará a las 22:30 en sentido Vitoria-Gasteiz y a las 23:00h en dirección Eibar.

Como alternativa al cierre, los tráficos provenientes de Eibar en dirección Vitoria Gasteiz deberán tomar la salida 123 de Eskoriatza y continuar por la GI-627 y la A-627. En sentido contrario, los vehículos deberán utilizar la N-240 y la A-627 hacia Eskoriatza.

Para minimizar la afección a los usuarios la simulación se realizará en horario nocturno. Además, con anterioridad, desde las 18:00horas del jueves, los paneles de mensajería variable situadas en AP-1, AP-8, AP-636, A-15, A-1 y N-240 alertarán del cierre de la autopista.

El simulacro tiene como objetivos medir la capacitación de los efectivos que participan en la misma en cuanto a conocimiento y aplicación de los protocolos de emergencia, la rapidez de respuesta y coordinación entre el personal involucrado y los servicios externos como son los diferentes parques de bomberos de Araba y Gipuzkoa, Ertzaintza, SOS Deiak y servicios sanitarios. También servirá para analizar la coordinación de los responsables de la explotación del túnel que dependen de Bidegi y los de la concesionaria Arabat así como el reparto de funciones en cada territorio.

Su ejecución permitirá identificar nuevas necesidades de formación del personal responsable de la explotación de la infraestructura, mejoras en los protocolos y



procedimientos utilizados o la detección de posibles deficiencias en los sistemas de seguridad del túnel.

Esta actuación se realiza en cumplimiento de la Directiva 2004/54/CE del Parlamento Europeo y del Consejo que regula la realización de ejercicios de seguridad en túneles de más de 500 metros de la red transeuropea de carreteras a la que pertenece la autopista AP-1/AP-8.

El túnel de Isuskitza entró en servicio en 2009. Con sus 3.415 metros de longitud es el más largo de Euskadi. Consta de dos tubos paralelos con dos carriles en cada sentido y tiene una intensidad media de 17.712 vehículos/día con un porcentaje de pesados del 22% (datos de tráfico de 2023). Dispone de 11 galerías de emergencia que comunican ambos tubos 3 de las cuales están habilitadas para el paso de vehículos de emergencia, y cuenta también con tres apartaderos en cada sentido. En cuanto a instalaciones se encuentra equipado con iluminación normal, de seguridad y de evacuación, ventilación con detectores de CO/NO/NO<sub>2</sub> (Monóxido carbono, de nitrógeno y dióxido de nitrógeno), opacímetros y anemómetros. Asimismo, tiene sistemas de extinción de incendios mediante hidrantes y extintores, columna seca en las galerías, cable continuo de detección de incendio, señalización exterior de accesos, señalización interior, postes SOS, cámaras, megafonía y sistema de radiocomunicaciones. El túnel se gestiona desde el centro de Ondartza en Bergara que lleva el control de la AP-1 y de la AP-636.

2024/11/12